

Irabazi iturriak

Gure enpresaren helburu nagusia birziklatzea da, beraz irabazi asko lortzeak ez du garrantzi handirik. Hala ere, egia da enpresa zutik mantentzeko, hornitzaileak eta gurekin aliantzan dauden enpresei ordaintzeko etekin minimo batzuk lortu behar ditugula.

Gure zerbitzuak saltzen dituen produktuak, bezeroak aldi bakarrean egindako ordainketatik erosiko dituzte. Hau da, ordainketa bakarraren bidezko sarrerak edukiko ditugu.

Hasieran, publizitateak mesede handia egingo digu bezero berriak erakartzeko, eta ondorioz, diru gehiago lortuko dugu gure produktuak saltzen. Gainera, ingurumenari laguntzeko enpresa bat denez, jendeak kontzientzia gehiago lortu eta laguntzeko prest egongo dira.

Irabazi-iturri horiekin nahikoa izango litzateke, baina agian, diruz oso estu egongo bagina, diru laguntzak ere eskatu ditzakegu, gobernuari edo jendeari adibidez. Ingurumenari laguntzeko dela eta, erakunderen bat gure proiektu edo enpresari lagun diezaioke.